Ordiziako Udala

2022IOSB0007

Ordizian, **2022ko uztailaren 21a** UDALBATZARRAK Ohiko bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

*En Ordizia siendo el día **21 de julio de 2022** se reúne en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial el AYUNTAMIENTO PLENO EN Sesión ordinaria con la asistencia de las siguientes personas:*

**LEHENDAKARIA:**

Adur Ezenarro Agirre jn.

**BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:**

| | |
|---|---|
| Maitane Alvarez Garciandia | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Jon Ander Caballero Zubelzu | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Ainhoa Jimenez Goñi | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Jesus M.Lariz Orbezabal | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Itsaso Muñoz Rodriguez | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Lander Mujika Onandia | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Bittor Bolinaga Alzelai | EAJ-PNV |
| Joseba Aranburu Ganzarain | EAJ-PNV |
| Xabier Crespo Ibarrolaburu | EAJ-PNV |
| Arantxa Fernandez Alvaredo | EAJ-PNV |
| Agurtzane Antoñana Arizmendi | EAJ-PNV |
| Miren Alazne Sukia Galparsoro | ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) |
| Juan Ignacio Alonso Arratibel | ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) |
| Iñaki Dubreuil Churruca | PSE-EE (PSOE) |

**IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK:**

| | |
|---|---|
| Arantxa Arocena Gomez | EAJ-PNV |
| Jose Miguel Santamaría Ezeiza | EAJ-PNV |

**IDAZKARIA:**

Ainhoa Esnaola Zubeldia

**KONTUHARTZAILEA:**

Aloña Landa Piedrafita jn.

**AZTERTUTAKO GAIAK:**

**EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:**

| | |
|---|---|
| 1.- 2022ko ekainaren 30ean. udalbatzarrak egindako batzarraren akta zirriborroa onartzea. | *1.- Aprobación del borrador del Acta de la sesión de Plenaria celebrada el 30 de junio de 2022.* |
| 2.- Ordiziako Udalaren Erregelamendu Organikoaren aldaketa. | *2.- Modificación del Reglamento Orgánico del Ayuntamiento de Ordizia.* |
| 3.- Gazteentzako etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak emateko ordenantza. | *3.- Ordenanza de concesión de subvenciones para alquiler de vivienda para jóvenes.* |
| 4.- Ordiziako Udaleko Musika Eskola zerbitzua arautzeko Erregelamendua. | *4.- Reglamento regulador del servicio de Musika Eskola del Ayuntamiento de Ordizia* |
| 5.- Ordiziako Udaleko Dirulaguntzen Ordenantzaren aldaketa. | *5.- Modificación de la Ordenanza de Subvenciones del Ayuntamiento de Ordizia* |
| 6.- Ordiziako Udaleko lanpostu zerrendaren eta plantillaren aldaketa | *6.- Modificación de la plantilla y relación de puestos de trabajo del Ayuntamiento de Ordizia* |
| 7.- Herri Antzokia Erakunde autonomoa desegitearen hasierako onarpena | *7.- Aprobación inicial de la disolución del Organismo Autónomo Herri Antzokia* |
| 8.- 2021 ekitaldiko Ordiziako Udaleko Kontu Orokorra behin betiko onartzea | *8.- Aprobación definitiva de la Cuenta General del ejercicio* |
| 9.- Kreditu Gehigarrien proposamena (kredituen baliogabetze bajetatik) | *9.- Propuesta de modificación de créditos adicionales (mediante baja por anulación de créditos)* |
| 10.- Kreditu gehigarrien proposamena (finantzaketa lotua duen diruzaintza gerakinaren bitartez) | *10.- Propuesta de modificación de créditos adicionales (mediante el remanente de tesorería con financiación afectada)* |

| | |
|---|---|
| 11.- Ekaineko Alkatetzako dekretuen berri ematea. (zbkak:518/794 bitartekoak) | *11.- Dación de cuenta de los decretos de alcaldía correspondientes al mes de junio (desde el nº.518/al 794)* |
| 12.- Galde-erreguak. | *12.- Ruegos y preguntas.* |

**GORABEHERAK:**

**ORDUTEGIA:**

**HASIERA: 18:00etan.** **AMAIERA: 18:45ean.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

*Abierta la sesión por parte del Presidente, se da lectura al primer punto del orden del día.*

**1.- 2022ko ekainaren 30ako ohiko Osoko Batzarrako akta zirriborroa onartzea.**

***1.- Aprobación del borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 30 de junio de 2022***

Proposamena

*Propuesta*

**2022ko ekainaren 30ako ohiko Osoko Batzarrako akta zirriborroa onartzea.**

***Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria celebrada el día 30 de junio de 2022***

Eztabaida

*Debate*

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, inork ez du esku hartu.

*Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde nadie ha solicitado la palabra.*

Bozketa:

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

**Aldekoak**: 15 (EUSKAL HERRIA BILDU (E.H. Bildu) 7, EAJ/PNV 5, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 2, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**: 0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**2.- Ordiziako Udalaren Erregelamendu Organikoaren aldaketa.**

***2.- Modificación del Reglamento Orgánico del Ayuntamiento de Ordizia.***

**Proposamena**

Gure Udalak erregelamenduak egiteko eta bere burua antolatzeko ahalmena du apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 2.5 eta 10. artikuluei jarraiki, apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 4.1.a artikuluarekin bat etorriz.

- Ahalmen hori baliatuta eta apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarri denari jarraituta, ahalmena dute, beren eskumenen barruan, estatuko nahiz autonomia erkidegoko legeetan xedatutakoa garatzeko. Hartara, xedapen orokorrak onartu ditzakete, Udalbatzak onetsita, besteak beste, toki-erakundearen antolaketa eta funtzionamendua arautze aldera.

- Kontuan hartuz egun Ordiziako Udalean indarrean dagoen Erregelamendu Organikoa 1991. Urtekoa dela, agerian gelditu da Erregelamendu Organikoa aldatzeko beharra, egungo udal egiturara egokitzeko helburuarekin.

- Udalbatzari dagokio erregelamenduari hasierako onespena ematea, gehiengo osoarekin, apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 22.2.d eta 47.2.f artikuluen arabera, apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 25.1 artikuluan xedatu denarekin bat etorriz.

***Propuesta***

*- Considerando que corresponde a este municipio la potestad reglamentaria y de autoorganización en virtud de lo previsto en los artículos 2.5 y 10 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, en concordancia con el artículo 4.1.a de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local.*

*- Considerando que en virtud de esta potestad y de conformidad con la Disposición Adicional Primera de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, tienen capacidad para desarrollar, dentro de la esfera de sus competencias, lo dispuesto en las leyes estatales o autonómicas, pudiendo dictar disposiciones de carácter general, aprobadas por el Pleno, que regulen, entre otras materias, la organización y el funcionamiento de la Entidad Local.*

*- Considerando que el Reglamento Orgánico Municipal del Ayuntamiento de Ordizia actualmente vigente es del año 1991, se ha puesto de manifiesto la necesidad de modificar dicho Reglamento Orgánico con el objetivo de adaptar dicha normativa a la estructura municipal actual.*

*- Considerando que la aprobación inicial del Reglamento corresponde al Ayuntamiento Pleno, por mayoría absoluta, en virtud de lo establecido en los artículos 22.2.d) y 47.2.f) de la Ley 7/1985, de 2 abril, en concordancia con el artículo 25.1 de la Ley 2/2016, de 7 de abril.*

- Aldez aurretik, Antolakuntzarako Informazio Batzordeak irizpena eman behar du proposamenari buruz, apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 20.1.c artikuluan adierazi gisan, besteak beste, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82, 123 eta 126. artikuluekin bat etorriz –Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onesten du errege-dekretu horrek, AFE-.

*- Considerando que la propuesta debe ser dictaminada previamente por la Comisión Informativa de Organización, en virtud de lo previsto, en el artículo 20.1.c) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local -LRBRL-, en concordancia con los artículos 82, 123 y 126, entre otros, del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales -ROF-, aprobado por Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre.*

- Hasierako onespenari buruzko erabakia jendaurrean jarri behar da, hogeita hamar egun baliodunez, gutxienez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaleko iragarki-taulan, interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioak edota iradokizunak egin ditzaten, apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49. artikuluan agindutakoaren arabera.

*- Considerando que el acuerdo de aprobación inicial debe exponerse al público por plazo mínimo de treinta días hábiles, mediante anuncios en el Boletín Oficial de la Provincia y en el tablón de anuncios de este Ayuntamiento para que los interesados puedan examinar el expediente y formular reclamaciones y/o sugerencias, por así exigirlo el artículo 49 de la Ley 7/1985, de 2 abril.*

- Epe horretan erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, osoko bilkurak ez du akordio berririk hartu beharko, eta ondorio horietarako Idazkaritzak horren gaineko ziurtagiria igorriko du, ordura arte hasierako erabakia zena behin betiko bihurtz.

*- Considerando que en el supuesto de que no se presenten reclamaciones ni sugerencias, no será necesaria la adopción de nuevo acuerdo plenario, extendiéndose a tales efectos certificación acreditativa de tal extremo por la Secretaría y entendiéndose elevado automáticamente a definitivo el acuerdo hasta entonces inicial.*

- Hori guztia ikusita, eta Idazkaritzako txostenarekin bat etorriz, Udalbatzari honakoa aurkezten zaio Antolakuntza Batzordeak aldeko irizpena eman ondoren.

*- A la vista de todo ello y de conformidad con el informe de la Secretaria, se eleva al Pleno de la Corporación, previo Dictamen favorable de la Comisión Informativa de Organización, la siguiente.*

**ERABAKI-PROPOSAMENA**

***PROPUESTA DE ACUERDO***

**LEHENENGOA**.- Hasierako onespena ematea Udaleko Erregelamendu Organikoaren aldaketari.

***PRIMERO***.- *Aprobar inicialmente el Reglamento Orgánico Municipal.*

**BIGARRENA**.- Erabaki hau jendaurrean jartzea, 30 egun baliodunez, hala Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, nola udaleko iragarki taulan nahiz web-gunean,

***SEGUNDO***.- *Someter el presente acuerdo a información pública por plazo de 30 días hábiles, mediante anuncio en el Boletín Oficial de la Provincia, en el tablón de*

interesdunek erreklamazioak, iradokizunak edo oharrak aurkeztu ditzaten. Erreklamazio, iradokizun edo oharrik aurkeztu ezean, ulertuko da hasierako onarpena behin-betikoa dela

*anuncios de este Ayuntamiento y en la página web municipal para que los interesados puedan formular reclamaciones, reparos u observaciones. En caso de no presentarse reclamaciones, reparos, ni observaciones, el acuerdo inicial se entenderá elevado a definitivo.*

<u>Eztabaida</u>

*<u>Debate</u>*

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

*Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:*

<u>Alkate Jauna:</u> uste dut irailean ekarri genuela araudi organikoaren aldaketa proposamen gisa. Beraz, nahikoa denbora izan da hausnarketarako eta ez da ekarpenik egon.

Ziurrenik, aurrez geneukan erregelamendua baino maizago aldatu beharko da eta ondorioz, Erregelamendu honekin, batik bat, araudia eguneratzea planteatzen da, izan ere, aurrekoa oso zaharra da eta ez daude zenbait alderdi jasota.

*<u>Sr.Alcalde</u>: Creo que se presentó en septiembre la propuesta de modificación del Reglamento Orgánico. Así que ha habido tiempo suficiente para la reflexión y no ha habido aportaciones.*

*Probablemente sea necesario modificar con más frecuencia el reglamento que ya teníamos, por lo que con este Reglamento se plantea, sobre todo, una actualización de la normativa, ya que el anterior es muy antiguo y en él, no se recogen ciertos aspectos.*

<u>Iñaki</u>: lehenik eta behin esan, ez dugula astirik izan araudia aztertzeko eta, horregatik, abstenitu egingo gara. Zioen Azalpenean Toki Autonomiaren Europako Gutuna baino ez da aipatzen, Toki Araubidearen Oinarrien Legea, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko Legea edo toki-korporazioen antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko erregelamendua aipatu gabe. Era berean, ez dira organo deszentralizatuak aipatzen, hala nola Majori edo Herri Antzokia, eta horregatik, abstenitu egingo naiz.

*<u>Iñaki</u>: en primer lugar, decir que no hemos tenido tiempo para estudiar el reglamento y anunciar por ello nuestra abstención. Ya en la Exposición de Motivos solo se hace mención a la Carta Europea de Autonomía Local, sin mencionar la Ley de Bases del Régimen Local, la Ley de racionalización y sostenibilidad de la administración Local o el reglamento de organización, funcionamiento y régimen jurídico de las corporaciones locales. Del mismo modo, no se hace mención a los órganos descentralizados, como pueden ser Majori o Herri Antzokia y por todo ello, me voy a abstener.*

<u>Alkate Jauna:</u> aurrez adierazi dugu irailean bertan ekarri zela, beraz, nahikoa denbora izan duzue aztertzeko.

*<u>Sr.Alcalde:</u> ya hemos indicado que se presentó en septiembre, por lo que habéis tenido tiempo suficiente para estudiarlo.*

Idazkariak Iñakik aipatu dituen araudiei erreferentzia zehatzik Zioen Adierazpenean zergatik ez den egiten azaldu du.

*La Secretaria: explica por qué no se hace una referencia concreta en la Exposición de Motivos a los reglamentos a los que se ha referido Iñaki.*

Bozketa:

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

**Aldekoak**: 14 (EUSKAL HERRIA BILDU (E.H. Bildu) 7, EAJ/PNV 5, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 2,)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**: PSE-EE (PSOE) 1

**Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**3.- Gazteentzako etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak emateko ordenantza.**

***3.- Ordenanza reguladora sobre la concesión de ayudas para el alquiler de viviendas para jóvenes***

Proposamena

Ordiziako Udalak 2018/9 urtean gazte plana egiteari ekin zion. Parte-hartze prozesuan, gazteek emantzipatzeko zuten borondatearen eskari handia atzeman zen baina era berean, horretarako zailtasunak topatu ziren:

a) Batetik, alokairuko etxebizitza gutxi zeudela atzeman zen.
b) Bestetik, errentak garestiak zirela ondorioztatu zen.

Hori horrela, egoerari aurre egiteko helburuarekin OHZren errekargutik urtero lortzen diren diru-sarrerekin gazteei emantzipazio-prozesuan laguntzeko dirulaguntzak eman nahi dira.

*El Ayuntamiento de Ordizia inició en el año 2018/9 la elaboración del plan de juventud. En su proceso participativo se detectó una demanda importante de la juventud respecto de la voluntad de emanciparse y de las dificultades que tenían para ello:*

*a) Por un lado, se detectó una oferta escasa de vivienda en alquiler.*
*b) Por otro lado, que el precio del alquiler era muy caro.*

*Es por ello que, para hacer frente a esta situación, se pretende conceder subvenciones mediante los ingresos que anualmente se obtienen del recargo del IBI por vivienda vacía.*

Beraz, Ordenantza honen xedea honako hau da: Ordiziako udalerrian ohiko egoitza izateko alokairu erregimenean etxebizitza bat duten 18 eta 35 urte bitarteko gazteei alokairuaren zati bat ordaintzen laguntzea, beren emantzipazioa sustatzeko eta etxeak partekatzeko aukera zabaltzeko herrian.

*Por tanto, la presente Ordenanza tiene por objeto contribuir en parte del pago de alquiler de la vivienda destinada a domicilio habitual de jóvenes de entre 18 y 35 años, que dispongan de una vivienda en régimen de alquiler, para fomentar así su emancipación y el alquiler compartido de viviendas en el pueblo.*

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 d) artikuluak zehazten denaren arabera, Osoko Bilkurari dagokio ordenantzak onartzea.

*De conformidad con el artículo 22.2. d) de la Ley 7/1985 de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, corresponde al Pleno la aprobación de los Reglamentos y Ordenanzas.*

Aipatutako Legearen 49 artikuluak zehazten denaren arabera, araudi eta ordenantzak honako prozedura jarraitu beharko dute:

*Atendiendo a lo que dispone el artículo 49 de la citada Ley, la aprobación de los reglamentos y ordenanzas se ajustará al siguiente procedimiento:*

a) Osoko bilkuraren hasierako onarpena.
b) Jende aurreko informazioa eta interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko hogeita hamar eguneko gutxieneko epea ematea.
c) Epe horretan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunen ebazpena eta osoko bilkuraren behen betiko onarpena.

*a) Aprobación inicial por el Pleno.*
*b) Información pública y audiencia a los interesados por el plazo mínimo de treinta días para la presentación de reclamaciones y sugerencias.*
*c) Resolución de todas las reclamaciones y sugerencias presentadas dentro del plazo y aprobación definitiva por el Pleno.*

Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, hasierako erabakia behin betiko bihurtuko da, erabaki berririk hartzeko beharrik izan gabe.

*En el caso de no presentarse ninguna reclamación o sugerencia, se entenderá elevado a definitivo el acuerdo de aprobación inicial, sin necesidad de nuevo acuerdo.*

Hori guztia kontuan hartuta, Osoko Bilkurari hurrengo AKORDIO PROIEKTUA aurkezten zaio:

*Teniendo en cuenta todo lo anterior, se eleva al Pleno la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:*

**AKORDIO PROIEKTUA:**

***PROPUESTA DE ACUERDO:***

1.- 1**8 ETA 35 URTE BITARTEKO GAZTEENTZAKO ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZAri** hasierako onarpena ematea.

*1.- Aprobar inicialmente la* ***ORDENANZA REGULADORA SOBRE LA CONCESIÓN DE AYUDAS PARA EL ALQUILER DE VIVIENDAS PARA JOVENES DE ENTRE 18 Y 35 AÑOS***

2.- Ordenantza jendaurrera zabaltzea iragarki taulan, udalaren web-orrian eta Gipuzkoako aldizkari Ofizialeko iragarki bidez 30 eguneko epean, interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko aukera emateko, eta Udalak ebatziko ditu iradokizun hauek.

*2.- Someter la Ordenanza a información pública en el Tablón de anuncios, página web municipal y Boletín Oficial de Gipuzkoa por un plazo de 30 días, dando audiencia a los interesados para la presentación de reclamaciones y sugerencias que serán resueltas por la Corporación.*

3.- Erreklamaziorik ez balego, akordio berrirk gabe Ordenantzak behin betiko onartutzat joko da.

*3.- En el supuesto de que no hubiera reclamaciones, se considerará la Ordenanza aprobada definitivamente sin necesidad de nuevo acuerdo.*

Eztabaida

*Debate*

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

*Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:*

Maitane Alvarez: Ordizia Orainekin lanketan aspaldi hasi ginen eta galdeketa bat ere egin genuen herritarrekin. Denbora batean geldirik egon da gaia eta orain berriro ekingo diogu prozesuari. Horretarako, lehenik eta behin, Ordenantza onartu behar da eta horixe ekartzen dugu hona.

*Maitane Alvarez: Hace tiempo que empezamos a trabajar con Ordizia Orain e incluso hicimos una consulta con la ciudadanía. Durante un tiempo el tema ha estado parado y ahora retomaremos el proceso. Para ello, lo primero que hay que hacer es aprobar la Ordenanza y eso es lo que presentamos aquí.*

Bittor Bolinaga: guri ondo iruditzen zaigu. Bere oinarria guk ekin genion gazte planean dago eta beraz, pozten gara berriro guk hasitako bideari ekitea. Agian lehenago hasi beharko zukeen gaiak, baina berriro martxan jarri bada, ados gaude.

*Bittor Bolinaga: A nosotros nos parece bien. La base parte del plan de juventud que nosotros emprendimos, por lo que nos alegramos de retomar el camino que nosotros empezamos. Quizá se debería haber comenzado antes, pero si se ha vuelto a poner en marcha, estamos de acuerdo.*

Bozketa:

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

**Aldekoak**: 15 (EUSKAL HERRIA BILDU (E.H. Bildu) 7, EAJ/PNV 5, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 2, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**: 0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**4.- Ordiziako Udaleko Musika Eskola zerbitzua arautzeko Erregelamendua.**

Proposamena

Sektore Publikoaren Kontratuen 9/2017 Legeko 312. artikuluari jarraiki, zerbitzu bat kontratatu aurrez bere araubide juridikoa zehaztu behar da, non espresuki adierazi behar den Udalak bere egiten duela jarduera, nahiz zerbitzuari emateari lotutako alderdi juridiko, ekonomiko eta administratiboak.

Honela beraz, Ordiziako Musika Eskolaren zerbitzua kanpo-kontratatu aurretik zerbitzuaren funtzionamendua arautuko duen erregelamendua onartu behar da.

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 d) artikuluak zehazten denaren arabera, Osoko Bilkurari dagokio ordenantzak onartzea.

Aipatutako Legearen 49 artikuluak zehazten denaren arabera, araudi eta ordenantzak honako prozedura jarraitu beharko dute:

a) Osoko bilkuraren hasierako onarpena
b) Jende aurreko informazioa eta interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko hogeita hamar eguneko gutxieneko epea ematea.
c) Epe horretan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunen ebazpena eta osoko bilkuraren

***4.- Reglamento regulador del servicio de Musika Eskola del Ayuntamiento de Ordizia***

*Propuesta*

*El artículo 312 de la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público establece que antes de proceder a la contratación de un servicio se debe establecer su régimen jurídico, que declare expresamente que la actividad de que se trata queda asumida como propia de la misma, así como los aspectos de carácter jurídico, económico y administrativo.*

*Es por ello que, antes de proceder a la contratación del servicio de Musika Eskola de Ordizia se debe aprobar su reglamento de funcionamiento.*

*De conformidad con el artículo 22.2. d) de la Ley 7/1985 de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, corresponde al Pleno la aprobación de los Reglamentos y Ordenanzas.*

*Atendiendo a lo que dispone el artículo 49 de la citada Ley, la aprobación de los reglamentos y ordenanzas se ajustará al siguiente procedimiento:*

*a) Aprobación inicial por el Pleno.*

*b) Información pública y audiencia a los interesados por el plazo mínimo de treinta días para la presentación de reclamaciones y sugerencias.*

*c) Resolución de todas las reclamaciones y sugerencias presentadas dentro del plazo y aprobación definitiva por*

behen betiko onarpena.

*el Pleno.*

Erreklamaziorik ego iradokizunik aurkeztuko ez balitz, hasierako erabakia behin betiko bihurtuko da, erabaki berririk hartzeko beharrik izan gabe.

*En el caso de no presentarse ninguna reclamación o sugerencia, se entenderá elevado a definitivo el acuerdo de aprobación inicial, sin necesidad de nuevo acuerdo.*

Hau guztia kontuan hartuta, hurrengo AKORDIO PROPOSAMENA egiten zaio Osoko Bilkurari:

*Teniendo en cuenta todo lo anterior, se eleva al Pleno la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:*

**AKORDIO PROPOSAMENA:**

1.- Ordiziako Musika Eskola zerbitzua arautzeko Erregelamenduari hasierako onarpena ematea.

2.- Erregelamendua jendaurrera zabaltzea Udalaren iragarki taulan, web-orrian eta Gipuzkoako aldizkari Ofizialeko iragarki bidez 30 egun balioduneko epean, interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko aukera emateko, eta Udalak ebatziko ditu iradokizun hauek.

3.- Erreklamaziorik ez balego, akordio berririk gabe Erregelamendua behin betiko onartutzat joko da.

***PROPUESTA DE ACUERDO:***

*1.- Aprobar inicialmente el Reglamento Municipal regulador del servicio de Musika Eskola.*

*2.- Someter el Reglamento a información pública en el Tablón de anuncios, en la página web del Ayuntamiento y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa por un plazo de 30 días hábiles, dando audiencia a las personas interesadas para la presentación de reclamaciones y sugerencias que serán resueltas por la Corporación.*

*3.- En el supuesto de que no hubiera reclamaciones, se considerará el Reglamento aprobado definitivamente sin necesidad de nuevo acuerdo.*

Eztabaida

*Debate*

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

*Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:*

Alkate Jauna: berez, lizitaziorik gabe dagoen zerbitzuetako bat da. Azterketa egin da zein modutan konpondu daitekeen gaia, txostenak egin dira, eta lehenik eta behin, zerbitzua arautu behar da ondoren esleipen-prozedura martxan jartzeko.

*Señor Alcalde: en realidad es uno de los servicios que está sin licitación. Se ha realizado un análisis de la forma en que se puede resolver el asunto, se han elaborado informes y en primer lugar hay que regular el servicio para después poner en marcha el procedimiento de adjudicación.*

Bozketa:

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

**Aldekoak**: 15 (EUSKAL HERRIA BILDU (E.H. Bildu) 7, EAJ/PNV 5, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 2, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**: 0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**5.- Ordiziako udalean dirulaguntzak arautzeko ordenantzaren aldaketa.**

Proposamena

**AURREKARIAK**

Orain arte, Ordiziako Udalean indarrean egon da 2013ko urriaren 31an Osoko Bilkurak onartutako Dirulaguntzen Ordenantza. Nolanahi ere, ordutik, araudi aldaketa ugari eman dira, eta beraz, beharrezkotzat jo da aipatu araudia berrikustea, besteak, gardentasunaren, eraginkortasunaren, edota administrazio elektronikoaren zenbait alderdi txertatzearrean.

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 d) artikuluak zehazten denaren arabera, Osoko Bilkurari dagokio ordenantzak onartzea edo aldatzea.

Aipatutako Legearen 49 artikuluak zehazten denaren arabera, araudi eta ordenantzak honako prozedura jarraitu beharko dute:

***5.- Modificación de la ordenanza reguladora de subvenciones del ayuntamiento de Ordizia.***

*Propuesta*

***ANTECEDENTES***

*Hasta ahora, en el Ayuntamiento de Ordizia ha estado vigente la Ordenanza reguladora de Subvenciones aprobada por el Pleno con fecha de 31 de octubre de 2013. En cualquier caso, desde entonces, se han producido diversos cambios normativos y es por ello que se ha considerado conveniente revisar dicha normativa para introducir, entre otros, diversos aspectos relativos a mejorar la transparencia, eficiencia o la administración electrónica.*

*De conformidad con el artículo 22.2 d) de la Ley 7/1985 de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, corresponde al Pleno la aprobación o modificación de las Ordenanzas.*

*Atendiendo a lo que dispone el artículo 49 de la citada Ley, la aprobación de los reglamentos y ordenanzas se ajustará al siguiente procedimiento:*

Osoko bilkuraren hasierako onarpena

Jende aurreko informazioa eta interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko hogeita hamar eguneko gutxieneko epea ematea.

Epe horretan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunen ebazpena eta osoko bilkuraren behen betiko onarpena.

Erreklamaziorik ego iradokizunik aurkeztuko ez balitz, hasierako erabakia behin betiko bihurtuko da, erabaki berririk hartzeko beharrik izan gabe.

Hau guztia kontuan hartuta, hurrengo AKORDIO PROPOSAMENA egiten zaio Osoko Bilkurari:

**AKORDIO PROPOSAMENA:**

1-. Ordiziako Udaleko Dirulaguntzen Ordenantzaren aldaketari hasierako onarpena ematea.

2-. Ordenantza jendaurrean jartzea 30 egun balioduneko epean Udalaren iragarki-taulan, web-orrian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, pertsona interesdunek erreklamazioak eta iradokizunak egin ditzaten, zeinak Udalak ebatziko dituen.

3-. Erreklamaziorik ez balego, akordio berririk gabe Ordenantza behin-betikotzat joko da.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate Jauna: Dirulaguntzen Ordenantza

*Aprobación inicial por el Pleno.*

*Información pública y audiencia de las personas interesadas por un plazo mínimo de 30 días hábiles para la presentación de reclamaciones y sugerencias.*

*Resolución de todas las reclamaciones y sugerencias presentadas dentro del plazo y aprobación definitiva por el Pleno.*

*En el caso de no presentarse ninguna reclamación o sugerencia, se entenderá elevado a definitivo el acuerdo de aprobación inicial, sin necesidad de nuevo acuerdo.*

*Teniendo en cuenta todo lo anterior, se eleva al Pleno la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:*

***PROPUESTA DE ACUERDO:***

*1-. Aprobar inicialmente la Ordenanza reguladora de Subvenciones del Ayuntamiento de Ordizia.*

*2-. Someter la Ordenanza a información pública en el tablón de anuncios, en la página web del Ayuntamiento y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa por un plazo de 30 días hábiles, dando audiencia a las personas interesadas para la presentación de reclamaciones y sugerencias, que serán resueltas por la Corporación.*

*3-. En el supuesto de que no hubiera reclamaciones, se considerará la Ordenanza aprobada definitivamente sin necesidad de nuevo acuerdo.*

*Debate*

*Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:*

*Sr. Alcalde: se ha introducido la modificación*

Orokorraren aldaketa ekarri da, batik bat, egungo marko juridikora egokitzeko.

*de la Ordenanza General de Subvenciones, fundamentalmente para adecuarla al marco jurídico actual.*

Bozketa:

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

**Aldekoak**: 15 (EUSKAL HERRIA BILDU (E.H. Bildu) 7, EAJ/PNV 5, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 2, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**: 0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**6.- Ordiziako udaleko lanpostu zerrendaren eta plantillaren aldaketa.**

***6.- Modificación de la relación de puestos de trabajo y de la plantilla del Ayuntamiento de Ordizia.***

Proposamena

*Propuesta*

**AURREKARIAK**

***ANTECEDENTES***

2022ko uztailaren 11an bildutako Ordiziako Udaleko Balorazio Batzordean hurrengo erabakiak hartu ziren:

*En la Comisión de Valoración del Ayuntamiento de Ordizia celebrado a fecha de 11 de julio de 2022 se adoptaron los siguientes acuerdos:*

“1-. A221 Kodea duen Diruzain lanpostuaren funtzioak eta balorazioa aldatzea, zeina Diruzain eta Diru-Bilketa Administrari izatera igaroko den.

*“1-. Modificación del puesto de trabajo Código A122: el puesto actual pasará a denominarse Administrativo de Tesorería y Recaudación, con modificación de funciones y su valoración.*

2-. A221.8 Kodea duen lanpostuaren aldaketa. Kontuhartzailetza Administrari izatetik, Errenta Administrari izatera igaroko da, funtzio aldaketekin.

*2-. Modificación del puesto de trabajo Código 221.8. El puesto de trabajo Administrativo de Intervención pasará a denominarse Administrativo de Rentas, con modificación de funciones.*

3-. A221.9 Kodea duen lan-postuaren aldaketa. Herritarrentzako Arretako Administrari izatetik, Errenta eta Dirubilketako Administrari izatera igaroko da, funtzio aldaketekin.

*3-. Modificación del puesto de trabajo Código 221.9. El puesto de trabajo Administrativo de Atención Ciudadana, pasará a denominarse Administrativo de Rentas y Recaudación, con modificación de funciones.*

4-. Kirol teknikariaren lanpostua sortzea.

*4-. Crear el puesto de trabajo de Técnico de Deportes.*

5-.Kontu-hartzailetzako teknikari lanpostua sortzea.

*5-. Crear el puesto de trabajo de Técnico de Intervención.*

6-. Udal biltegi eta mantenimendu peoi lanpostua amortizatzea”.

*6-. Amortizar el puesto de trabajo de Peón de almacén y mantenimiento.*

Lan-postuen zerrendaren aldaketak prozedura zehatza jarraitzea dakar. Zentzu honetan, doktrina jarraitua da Lan-postuen zerrendak hartzaile plural edo zehaztugabeei zuzendutako egintza administratibo izaera dutela, eta beraz, ez dauka izaera orokorreko xedapen edo erregelamendu izaera. Hala berretsi du Auzitegi Gorenak, besteak beste, 2014ko otsailaren 5eko Epaian.

*La modificación de la relación de puestos de trabajo conlleva seguir un procedimiento concreto. En este sentido, la doctrina viene considerando que la RPT es un acto plúrimo con destinatarios indeterminación y no una disposición de carácter general. Así lo ha reiterado el Tribunal Supremo, entre otros, en la Sentencia de 5 de febrero de 2014.*

Hori horrela, eta egungo Auzitegi Gorenaren doktrinari jarraiki, Langileen Zerrendaren aldaketan jarraitu beharreko prozedura hurrengoa da:

*En este sentido, y de conformidad con la doctrina actual del Tribunal Supremo, el procedimiento a seguir para la modificación de la Relación de Puestos de Trabajo es el siguiente:*

1-. Toki Erakundeetan, Langileen Zerrendaren aldaketa onartzeko organo eskumenduna, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 22.2.i artikuluari jarraiki, Udaleko Osoko Bilkura da.

*1-. El órgano competente para la aprobación de la RPT en las entidades locales, de acuerdo con lo dispuesto en el art. 22.2.i de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, es el Pleno del Ayuntamiento.*

2-. Behin Osoko Bilkurak Langileen Zerrendaren aldaketa onartuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da, egintza administratibo izaera duen heinean bere onarpenetik bertatik sortzen dituela efektuak, nahiz eta argitalpena eskatu, baina azken hau ez da eraginak izateko ezinbesteko baldintza, aldiz, hartzaile guztien publikazioa eta irismena bermatzeari lotuta dago.

*2-. Una vez aprobada la modificación por el Pleno de la Corporación, ha de publicarse en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. En cualquier caso, debemos tener en cuenta que al tratarse de un acto administrativo produce efectos desde su aprobación, si bien se exige su publicación, no como requisito de eficacia, sino para que sean públicas en el sentido de que puedan ser conocidos por los interesados.*

Era berean, kasu honetan, diruzain eta dirubilketako administrari, kirol teknikari eta kontuhartzailetzako teknikari lanpostuen kasuan, plantillaren aldaketa ere ematen da eta kasu honetan, udal Aurrekontuaren onarpenerako jarraitzen den prozedura bera jarraitu behar da, baita erakusketa publikorako izapide-aldia eta publikazioa ere **(TATB 126.3 artikulua).**

*Del mismo modo, en caso de los puestos de trabajo de administrativo de recaudación y tesorería, técnico de deportes y técnico de intervención, conlleva la modificación de la plantilla, y en este caso, se debe seguir el mismo procedimiento que para la aprobación del Presupuesto municipal, incluido el trámite de exposición pública y el de publicación (art. 126.3 TRRL).*

**Hau guztia kontuan hartuta, hurrengo AKORDIO PROPOSAMENA egiten zaio Osoko Bilkurari**

***Teniendo en cuenta todo lo anterior, se eleva al Pleno la siguiente*** **PROPUESTA DE ACUERDO**

**AKORDIO PROPOSAMENA:**

***PROPUESTA DE ACUERDO:***

1-. Ordiziako Udaleko lanpostuen zerrendaren aldaketari hasierako onespena ematea, hurrengo zehaztasunekin:

*1-. Aprobar inicialmente la modificación de la Relación de Puestos de Trabajo del Ayuntamiento de Ordizia, con las siguientes precisiones:*

- A122 Kodea duen lanpostuaren aldaketa: Diruzain eta dirubilketa administrari lanpostu izatera igaroko da, funtzio eta balorazio aldaketarekin.
- A221.8 Kodea duen lanpostuaren aldaketa. Kontuhartzailetza Administrari izatetik, Errenta Administrari izatera igaroko da, funtzio aldaketekin.
- A221.9 Kodea duen lanpostuaren aldaketa. Herritarrentzako Arretako Administrari izatetik, Errenta eta Dirubilketako Administrari izatera igaroko da, funtzio aldaketekin.
- Kirol-teknikari lanpostuaren sorrera.
- Kontuhartzailetza teknikari lanpostuaren sorrera.
- Udal Biltegi eta Mantenimendu Peioi lanpostuaren amortizazioa.

- *Modificación del puesto de trabajo Código A122: el puesto actual pasará a denominarse Administrativo de Tesorería y Recaudación, con modificación de funciones y su valoración.*
- *Modificación del puesto de trabajo Código 221.8. El puesto de trabajo Administrativo de Intervención pasará a denominarse Administrativo de Rentas, con modificación de funciones*
- *Modificación del puesto de trabajo Código 221.9. El puesto de trabajo Administrativo de Atención Ciudadana, pasará a denominarse Administrativo de Rentas y Recaudación, con modificación de funciones.*
- *Crear el puesto de trabajo de Técnico de Deportes.*
- *Crear el puesto de trabajo de Técnico de Intervención.*
- *Amortización del puesto de trabajo de Peón de almacén y mantenimiento.*

2-. Ordiziako Udaleko lanpostuen zerrendaren aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

*2-. Publicar el anuncio de modificación de la RPT en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.*

3-. Ordiziako Udaleko plantillaren aldaketari hasierako onespena ematea, eta iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jartzea 15 egun balioduneko epean. Epe horretan interesdunek erreklamazioak aztertu ditzakete. Akordioa behin-betikotzat onartuta joko da erreklamaziorik aurkezten ez bada; bestela, Osoko Bilkurak hilabeteko epea izango du horiek ebazteko.

*3-. Aprobar inicialmente la modificación de la Plantilla del Ayuntamiento de Ordizia para poner a exposición del público, previo anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, por 15 días hábiles, durante los cuales los interesados podrán examinarlos y presentar reclamaciones. El acuerdo se considerará definitivamente aprobado si durante dicho plazo no se hubiesen presentado reclamaciones. En caso contrario, el Pleno dispondrá de un mes para resolverlas.*

4-. Behin betiko onespenaren erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean beharko da, eta Estatuko Administrazioari eta Autonomia Erkidegoko Administrazioari jakinarazi, gehienez ere 30 egun balioduneko epean (TATB 127. art.)

*4-. La aprobación definitiva deberá publicarse en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y comunicare a la Administración del Estado y a la Administración de la Comunidad Autónoma, en el plazo máximo de 30 días hábiles (art. 127 TRRL).*

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate Jauna: antolaketa batzordean ere azaldu zen zehaztasun handiagoarekin gaia. Lehenik eta behin, biltegiko peoiaren lanpostua amortizatuko da.

Kirol teknikariaren lanpostua Udalera ekarriko da, ikusi delako, zenbait funtzio egokiagoa dela Udaletik bertatik ematea eta ez Majoritik.

Ondoren, gainerako aldaketak kontuhartzailetzan emango dira. Batetik, behin diruzain lanpostua sortu denez, orain diruzain administrariaren beste lanpostua egokitu da. Era berean, kontuhartzailetzako teknikari lan-postua ere sortu da.

Bittor Bolinaga: niri gustatuko litzaidake aktan jasota uztea Jarraipen Batzordean hartutako konpromezua, non adierazi zen, epe motz batean eta aurrekontuetan hala jasoko zela, lanpostu guztien balorazioaren eguneraketa bat egingo zela.

Alkate Jauna: bai Bittorrek esan duena zehazte aldera, ikusi da, 2011. urtean egindako balorazioan administrari guztiak berdin baloratu zirela eta era berean, urte horretan onartutako manualaren baitan, marko horretan jardun beharra ikusten da. Nolanahi ere, ikusi da, egun administrari lanpostu guztiek ez dutela lan-karga bera eta beraz, behar den bezala baloratzea garrantzitsua ikusi zen.

Bittor Bolinaga: nik agian orduan gaizki ulertu nuen, izan ere, ulertu nuen balorazio

*Debate*

*Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:*

*Sr.Alcalde: en la comisión de organización también se expuso el tema con mayor concreción. En primer lugar se procederá a la amortización del puesto de trabajo del peón de almacén.*

*El puesto de técnico deportivo se traerá al Ayuntamiento porque se ha visto que hay funciones que es más adecuado que se den desde el propio Ayuntamiento y no desde Majori.*

